



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko azaroaren 3a

118. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Interpelazioa, hizkuntzaren arloko politika orokorrari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztu du (3. or).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da izapide egokiak egin ditzan 2020/2021 ikas-turterako helduen euskarazko etengabeko hezkuntzako ikastaroa ezartzen dela bermatzeko. EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (3. or).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legearen erregelamenduari buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (5. or).
- Galdera, udal-titulartasuneko haur-eskola publikoetarako errefortzu gisa langileak kontratatzeari buruzkoa. Jorge Aguirre Oviedo jaunak egin du (5. or).
- Galdera, Azagrako Udalarekin NA-134 errepidean bi biribilgune egiteko lankidetz hitzarmen bati buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (6. or).
- Galdera, 75. eta 77. kilometroen artean Ebro ibaiak gainezka egiten badu, uholdea saihesteko N-113 errepidean (Iruña-Madril) egiten ari diren jarduketari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (7. or).
- Galdera, COVID-19ko kasuen intzidentzia handiaren justifikazioari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (7. or).
- Galdera, pandemia kudeatzeko Navarra Sumaren osasungintza alorreko proposamenei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (8. or).
- Galdera, Estatuko 2021eko Aurrekontu Orokorren Proiektuari buruzkoa, Nafarroako Foru Komunitateari dagokionez. Ramón Alzorri Goñi jaunak egin du (8. or).
- Galdera, Nafarroako garraio-enpresei bidesariak konpentsatzeko neurriei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (9. or).
- Galdera, Nafarroako Kulturaren I. Plan Estrategikoari buruzkoa. Ana Isabel Ansa Ascunce andreak egin du (9. or).

- Galdera, aurreko legealdian oinarrizko osasun laguntzari buruz egindako dokumentuen berrikuspenari eta eguneratzeari buruzkoa. Ana Isabel Ansa Ascunce andreak egin du (10. or).
- Galdera, konfinamendu-egoeran dauden ikasleen hezkuntza-arretari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (10. or).
- Galdera, azken hilabetean Nafarroan COVID-19aren pandemiaren kontrolerako ezarritako neurrien eraginkortasunari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (11. or).
- Galdera, derrigorrezko itxieraren ondoren ostalaritza-sektoreari laguntzeko neurri ekonomikoei buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (11. or).
- Galdera, adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzetako bisitak eta irteerak eteteko aukerei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (12. or).
- Galdera, familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legearen erregelamenduen egoerari buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (12. or).
- Galdera, alarma-egoeraren deklarazio berriaren ondoren kultura-sektorean izandako ondorioei eta inpaktua minimizatzeko neurriei buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (13. or).
- Galdera, esku-hartze sozialaren eremuan egun dagoen lan-gatazka konpontzeko Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (13. or).
- Galdera, euskarazko informazioari buruzkoa Espainiako Telebistako (TVE) lurraldeko bi albisteetan. Marisa De Simón Caballero andreak egin du (14. or).
- Galdera, jakiteko ea aurreikusi al den kolektiboen berezitasunak kontuan hartzea, neurriak egokitze aldera konfinamenduaren eragin larriena jasaten dutenen osasun egoerara. Mikel Buil García jaunak egin du (15. or).
- Galdera, antigenoen testei buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (15. or).
- Galdera, egun COVID-19ak zahar-etxeetan duen eraginari eta, halaber, hartutako neurrien eta kontingentzia planen askitasunari eta egokitasunari buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (16. or).
- Galdera, foru erkidegoaren egoerari buruzko eztabaidan onetsitako erabakiak betetzeari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (16. or).
- Galdera, 2021erako aurrekontuen proiektuari buruzkoa. Uxue Barkos Berruezo andreak egin du (17. or).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuan jarduera presentzialera itzultzeari buruzko Kontingentzia Plana aldatzea, Mahaiaren 2020ko urriaren 29ko erabakiaren bidez onetsia (18. or).
- Araua, Kontseilu Europarrean 2020ko uztailearen 21ean onetsitako Europako funtsetan nahiz Espainiako Gobernuari proposatuko zaizkion kasuko proiektuetan Nafarroak parte hartu ahal izateari buruzko Osoko Bilkura monografikoko eztabaida antolatzeko. Akats zuzenketa (19. or).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Interpelazioa, hizkuntzaren arloko politika orokorrari buruzkoa.**

### *IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko interpelazioa, hizkuntzaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Presako interpelazioa, hizkuntzaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2020ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da izapide egokiak egin ditzan 2020/2021 ikasturterako helduen euskarazko etengabeko hezkuntzako ikastaroa ezartzen dela bermatzeko.**

### *EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita izapide egokiak egin ditzan 2020/2021 ikasturterako helduen euskarazko etengabeko hezkuntzako ikastaroa ezartzen dela bermatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Halaber, mozio hau azaroaren 4ko Osoko Bilkuraren gai-zerrendan sar dadila eskatzen dute.

Joan den irailaren 7an helduen oinarrizko hezkuntzan izena emateko epea ireki zen Erriberako hainbat herritan. Tuterako Helduentzako Oinarrizko Hezkuntzako Ikastetxeak kudeatzen du hori, Iruñean dagoen Hezkuntza Departamentuko Ikasketen Antolamendu Zerbitzuaren menpean.

Corellan lehenbiziko aldiz aukera eman zaie herritarrei izena emateko Administrazioak antolatutako euskara-ikastaroetan. Horren emaitza izan da helduen prestakuntzarako eskaini diren ikastaroetatik euskara-ikastaroak izan direla eskaera handiena izan dutenak: 26 pertsonak eman dute izena horietan.

Ikasle horien guztien harridura eta nahasmen-dua sortu zen eskolak hasteko jarraibideen zain egon eta inolako jakinarazpenik iristen ez zi-

tzaienean, eta egoera hori berretsi zen 2020/21 ikasturtea hasteko unean gainerakoak bai baina euskara-ikastaroa hasi ez zenean.

Ikastaro hori ukatzeko arrazoiez galdetu dute euskara-ikastaroko ikasleek eta bilerak egin dituzte Hezkuntzan ardura duen unitate eta zerbitzu bakoitzarekin. Jaso duten erantzuna izan da euskara-eskolak ez direla emanen antolamendu-arrazoiengatik. Erabaki horrek bakar-bakarrik Corellako eta Cintruenigoko euskara-ikastaroetan du eragina.

Hori guztia dela eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Hezkuntzako kontseilaria premiatzen ditu izapide egokiak egin ditzan 2020/2021 ikasturterako helduen euskarazko etengabeko hezkuntzako ikastaroa ezartzen dela bermatzeko, albait lasterren.

Iruñean, 2020ko urriaren 29an

Foru parlamentariak: Txomin Martínez González eta Marisa de Simón Caballero

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legearen erregelamenduari buruzkoa.***MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legearen erregelamenduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Aurreikuspenen arabera, noiz bukatuko da Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legearen erregelamendua?

Iruñean, 2020ko urriaren 23an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

---

**Galdera, udal-titulartasuneko haur-eskola publikoetarako errefortzu gisa langileak kontratatzeari buruzkoa.***JORGE AGUIRRE OVIEDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Aguirre Oviedo jaunak aurkeztutako galdera, udal-titulartasuneko haur-eskola publikoetarako errefortzu gisa langileak kontratatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Aguirre Oviedo jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Duela gutxi jakin dugu Nafarroako Gobernuak 1,3 milioi euro bideratu dituela udal titulartasuneko

haur-eskola publikoetarako errefortzu gisa langileak kontratatuzko. Hori dela-eta, honako galdera hau egiten dugu:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du arestian aipatutako neurri hori dela-eta, eta nola eraginen die haur-eskolei eta toki entitateei?

Iruñean, 2020ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: Jorge Aguirre Oviedo

---

**Galdera, Azagrako Udalarekin NA-134 errepidean bi biribilgune egiteko lankidetzaren hitzarmen bati buruzkoa.**

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, Azagrako Udalarekin NA-134 errepidean bi biribilgune egiteko lankidetzaren hitzarmen bati buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Batzordean ahoz erantzun diezaion:

Lurralde Kohesiorako Departamentuak ba al du asmorik Azagrako Udalarri laguntzeko herrira sartzeko bi biribilguneren eraikuntzan, NA-134 Ebroko errepidearen segurtasuna bermatze aldean herrian barna igarotzen den tartean?

Iruñean, 2020ko urriaren 27an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## **Galdera, 75. eta 77. kilometroen artean Ebro ibaiak gainezka egiten badu, uholdea saihesteko N-113 errepidean (Iruña-Madril) egiten ari diren jarduketei buruzkoa.**

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, 75. eta 77. kilometroen artean Ebro ibaiak gainezka egiten badu, uholdea saihesteko N-113 errepidean (Iruña-Madril) egiten ari diren jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Batzordean ahoz erantzun diezaion:

Noiz hasiko dira N-113 errepidean (Iruña-Madril) 75. eta 77. kilometroen artean Ebro ibaiak gainezka egiten badu, uholdea saihesteko beharrezkoak diren jarduketak?

Iruñean, 2020ko urriaren 27an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## **Galdera, COVID-19ko kasuen intzidentzia handiaren justifikazioari buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, COVID-19ko kasuen intzidentzia handiaren justifikazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak biztanleko PCR tasarekin justifikatu du COVID-19ko kasuen intzidentzia handia. Oraindik ere berresten duzu Nafarroako emaitzak biztanleko eginiko PCRren ondorio direla?

Iruñean, 2020ko urriaren 27an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **Galdera, pandemia kudeatzeko Navarra Sumaren osasungintza alorreko proposamenei buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, pandemia kudeatzeko Navarra Sumaren osasungintza alorreko proposamenei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Berresten al duzu Navarra Sumak ez duela osasungintza alorreko proposamenik egin pandemiaren kudeaketarako?

Iruñean, 2020ko urriaren 27an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **Galdera, Estatuko 2021eko Aurrekontu Orokorren Proiektuari buruzkoa, Nafarroako Foru Komunitateari dagokionez.**

*RAMÓN ALZORRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ramón Alzorriz Goñi jaunak aurkeztutako galdera, Estatuko 2021eko Aurrekontu Orokorren Proiektuari buruzkoa, Nafarroako Foru Komunitateari dagokionez.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzorriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak Estatuko 2021eko Aurrekontu Orokorren Proiektuari buruz, Nafarroako Foru Komunitateari dagokionez?

Iruñean, 2020ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Ramón Alzorriz Goñi



## **Galdera, Nafarroako garraio-enpresei bidesariak konpentsatzeko neurriei buruzkoa.**

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako garraio-enpresei bidesariak konpentsatzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri jarriko ditu abian Nafarroako Gobernuak Nafarroako garraio-enpresei Nafarroako zenbait errepidetako bidesariak konpentsatzeko?

Iruñean, 2020ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## **Galdera, Nafarroako Kulturaren I. Plan Estrategikoari buruzkoa.**

*ANA ISABEL ANSA ASCUNCE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kulturaren I. Plan Estrategikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana Ansa Ascunce andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kiroleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2017ko abenduan aurkeztu zen Nafarroako Kulturaren I. Plan Estrategikoa, zeinak balioan jar-

tzen baitzituen kultura-sektoreak, eta halaber Nafarroako kultura-politika berri baten oinarriak sendotzeko apustua egiten baitzuen, 2017-2023 aldirako.

Plana Kultura Zuzendaritza Nagusiak sustatu zuen, Nafarroako Kultura Kontseiluarekin lankidetzan, eta hura taxutzeko aintzat hartu ziren parte hartzeko prozesu zabal baten barruan gauzatutako dinamika sektorialen eta lurralde-mailakoen bidez jasotako ekarpenak, hausnarketak eta irizkiak.

Pandemiak, konfinamenduak eta ondoren kultura-sektoreak osasuna babesteko beharrianetara egokitu beharrak ekarri dute planaren ezarpenaren eta garapenaren aldaketa.

Horregatik guztiagatik:

Nola planteatzen du Departamentuak planaren ebaluazioa, pandemiak dakartzan baldintzekin eta plana ezartzeko beharko diren egokitzapenekin?

Iruñean, 2020ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Ana Ansa Ascunce

## **Galdera, aurreko legealdian oinarrizko osasun laguntzari buruz egindako dokumentuen berrikuspenari eta eguneratzeari buruzkoa.**

*ANA ISABEL ANSA ASCUNCE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkeztutako galdera, aurreko legealdian oinarrizko osasun laguntzari buruz egindako dokumentuen berrikuspenari eta eguneratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Ana Ansa Ascunce andreak, honako galdera hau aurkeztu du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Pasa den legegintzaldian zenbait dokumentu prestatu ziren oinarrizko osasun-laguntzaren inguruan:

– Nafarroako Oinarrizko eta Komunitateko Osasun-Laguntzarako Estrategia 2019-2021

– Nafarroako Oinarrizko Arreta eta Komunitateko Ekintza eta Parte-Hartzearen Estrategiaren Ildoak

– Oinarrizko Osasun-laguntzarako Plan Estrategikoa

Gure ustez egungo pandemiaren eta haren ondorioen aurrean berrikusi eta eguneratu egin behar dira aipatu dokumentuak, oinarrizko osasun-laguntzan abiaraziko diren beharrezko neurri urgentek zehazteko eta definitzeko. Haien guttien artean, parte-hartze prozesuak lan-metodologiaren zati bat izan ziren, eta funtsezko ekarpena eskaini zuten.

Horregatik guztiagatik:

Noizko aurreikusten da haiek igortzea eta, beraz, noiz ekinen zaie oinarrizko osasun-laguntzan aurrera egiteko behar diren ekintzei?

Iruñean, 2020ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Ana Ansa Ascunce

## **Galdera, konfinamendu-egoeran dauden ikasleen hezkuntza-arretari buruzkoa.**

*PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkeztutako galdera, konfinamendu-egoeran dauden ikasleen hezkuntza-arretari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Pedro González Felipe jaunak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

• Nola ematen ari zaie hezkuntza-arreta Nafarroako Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Leziketako ikasleei, COVID-19aren pandemiak eragindako egoeragatik etxean konfinatuta daudenean?

Iruñean, 2020ko urriaren 28an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

## **Galdera, azken hilabetean Nafarroan COVID-19aren pandemiaren kontrolerako ezarritako neurrien eraginkortasunari buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, azken hilabetean Nafarroan COVID-19aren pandemiaren kontrolerako ezarritako neurrien eraginkortasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten duzu azken hilabetean Nafarroan COVID-19aren pandemiaren kontrolerako ezarritako neurrien eraginkortasunari buruz?

Iruñean, 2020ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **Galdera, derrigorrezko itxieraren ondoren ostalaritza-sektoreari laguntzeko neurri ekonomikoei buruzkoa.**

*CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galdera, derrigorrezko itxieraren ondoren ostalaritza-sektoreari laguntzeko neurri ekonomikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190., 191. eta 192. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri ekonomiko abiaraziko ditu Gobernuak derrigorrezko itxieraren ondoren ostalaritza-sektoreari laguntzeko?

Iruñean, 2020ko urriaren 28an

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

## **Galdera, adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzetako bisitak eta irteerak eteteko aukerei buruzkoa.**

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera, adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzetako bisitak eta irteerak eteteko aukerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Eskubide Sozialetako Departamentuak gogoan al darabil adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzetako bisitak eta irteerak eteteko aukerarik, neurri hori erabaki baitzen Osasuneko kontseilariak urriaren 21ean emandako 57/2020 Foru Aginduaren bidez?

Iruñean, 2020ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

## **Galdera, familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legearen erregelamenduen egoerari buruzkoa.**

*MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako galdera, familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legearen erregelamenduen egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak azaroaren 5ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Aurreikuspenen arabera, noiz bukatuko da Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legearen erregelamendua?

Iruñean, 2020ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

## **Galdera, alarma-egoeraren deklarazio berriaren ondoren kultura-sektorean izandako ondorioei eta inpaktua minimizatzeko neurriei buruzkoa.**

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkeztutako galdera, alarma-egoeraren deklarazio berriaren ondoren kultura-sektorean izandako ondorioei eta inpaktua minimizatzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kirol Kontseilariak Legebiltzarraren hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kultura eta Kirol Departamentuaren iritziz, zein ondorio sortuko ditu alarma-egoeraren deklarazio berriak kultura-sektorean eta inpaktua minimizatzeko zer neurri ditu gogoan?

Iruñean, 2020ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

## **Galdera, esku-hartze sozialaren eremuan egun dagoen lan-gatazka konpontzeko Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.**

*PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztutako galdera, esku-hartze sozialaren eremuan egun dagoen lan-gatazka konpontzeko Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan:

Zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak esku-hartze sozialaren eremuan egun dagoen lan-gatazka konpontzeko eta zerbitzuaren kalitatea zein langileen lan-baldintzak hobetzeko?

Iruñean, 2020ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

## **Galdera, euskarazko informazioari buruzkoa Espainiako Telebistako (TVE) lurraldeko bi albisteetan.**

### *MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, euskarazko informazioari buruzkoa Espainiako Telebistako (TVE) lurraldeko bi albisteetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egin du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Historikoki Espainiako Telebistako (TVE) lehen kanalean lurraldeko bi albisteak, astelehenetik ostiralera, 13:55ean eta 15:55ean, amaitzen ziren

eguneroko informazioaren laburpen bat euskaraz emanez.

Aspalditik, bi albistegi horietatik lehenean euskarazko eguneroko laburpena kendu dute, eta telebista publikoko bigarren albistegi horretan baizik ez da informazioa ematen gure erkidegoan koofiziala den hizkuntza horretan.

TVE 1, Espainian irrati eta telebistaren zerbitzu publikoaren zeharkako kudeaketa antolatzen duen merkataritza-sozietatearen telebista-katea da, eta bere lurraldeko albistegietan Nafarroako errealitate soziopolitikoari buruzko informazio egiazkoa eskaini behar du, hurbila, inpartziala eta anitza, eta funtsezkotzat jotzen dugu edukiak gure erkidegoko bi hizkuntza koofizialetan sartzea.

Estatuaren eskumena bada ere, Nafarroako Gobernuak Estatuko Administrazioarekin batera jokatu behar du TVEren emisioetan, bereziki lurraldeko bi albistegietan, gure erkidegoaren hizkuntza errealitatea islatu dadin.

Nafarroako Gobernuak ezagutzen al zuen egoera hori eta zer ekintza abiarazi behar ditu euskarazko informazioa berreskuratzeko TVEko lurraldeko lehen albistegian?

Iruñean, 2010eko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

## **Galdera, jakiteko ea aurreikusi al den kolektiboen berezitasunak kontuan hartzea, neurriak egokitze aldera konfinamenduaren eragin larriena jasaten dutenen osasun egoerara.**

*MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko ea aurreikusi al den kolektiboen berezitasunak kontuan hartzea, neurriak egokitze aldera konfinamenduaren eragin larriena jasaten dutenen osasun egoerara.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteko parlamentari Mikel Buil García

jaunak Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariari zuzenduriko gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, azaroaren 5eko Osoko Bilkurarako.

Martxoan eta apirilean konfinamendua pairatu ondoren, eragin kaltegarri desberdinak antzeman ziren pertsona eta kolektiboetan; besteak beste, zaharrak, desgaitasuna dutenak, buru-gaixoak eta haurrak.

Esperientzia hori kontuan hartuta eta gure erki-degoan izan litezkeen konfinamendu puntualei begira, hona galdera:

Konfinamendua beharrezkoa izanez gero, aurreikusi al da kolektiboen berezitasunak kontuan hartzea, neurriak egokitze aldera konfinamenduaren eragin larriena jasaten dutenen osasun egoerara?

Iruñean, 2020ko azaroaren 23an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

## **Galdera, antigenoen testei buruzkoa.**

*RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, antigenoen testei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak azaroaren 5eko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Nola egingen dira antigenoen testak, nori eta eta zer ekarriko du osasun etxeetan ezartzeak?

Iruñean, 2020ko azaroaren 1ean

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

## **Galdera, egun COVID-19ak zahar-etxeetan duen eraginari eta, halaber, hartutako neurrien eta kontingentzia planen askitasunari eta egokitasunari buruzkoa.**

*PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, egun COVID-19ak zahar-etxeetan duen eraginari eta, halaber, hartutako neurrien eta kontingentzia planen askitasunari eta egokitasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariari, azaroaren 5eko Osoko Bilkuran, ostegunarekin, ahoz erantzun dezan.

Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak egun COVID-19ak zahar-etxeetan duen eraginari buruz eta, halaber, hartutako neurrien eta kontingentzia planen askitasunari eta egokitasunari buruz?

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

## **Galdera, foru erkidegoaren egoerari buruzko eztabaidan onetsitako erabakiak betetzeari buruzkoa.**

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea foru erkidegoaren egoerari buruzko eztabaidan onetsitako erabakiak betetzeari aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, José Javier Esparza Abaurrea jaunak buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuako lehendakariak asmorik al du joan den astean foru erkidegoaren egoerari buruzko eztabaidan onetsitako erabakiak betetzeko eta, baiezkoan, zein epetan?

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea



## **Galdera, 2021erako aurrekontuen proiektuari buruzkoa.**

### *UXUE BARKOS BERRUEZO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Uxue Barkos Berruezo andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, 2021erako aurrekontuen proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko eledun Uxue Barkos Berruezo, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak heldu den azaroaren 5eko Osoko Bilkuran, ostegunarekin, ahoz erantzun dezan:

Gobernuak datorren astean ekarriko du Parlamentura 2021erako aurrekontuen proiektua.

Zein dira datorren urterako kontuen ardatzak eta, beraz, lehendakariaren negoziazio-ardatzak Legebiltzarrean?

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Uxue Barkos Berruezo

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Nafarroako Parlamentuan jarduera presentzialera itzultzeari buruzko Kontingentzia Plana aldatzea, Mahaiaren 2020ko urriaren 29ko erabakiaren bidez onetsia.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 29an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Parlamentuan jarduera presentzialera itzultzeari buruzko Kontingentzia Planaren bigarren puntuko "Bilkura ez-presentzialak eta mistoak (presentziala eta bideokonferentziazkoa) nola egin" 3. apartatua aldatzea. Testu hau izanen du:

"3. Osoko Bilkuretan egonen dira Nafarroako Gobernuko lehendakaria eta gehienez ere bi kontseilari, Mahaiko bost kideak, legelari nagusia edo bere ordezkoko legelaria, bai eta talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak hautatutako kideak ere; azken horiek honela banatuko dira, beren garrantzi numerikoari begiratuta:

Navarra Suma talde parlamentarioa:	3
Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioa:	2
Geroa Bai talde parlamentarioa:	2
EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioa:	2
Podemos-Ahal Dugu Nafarroa foru parlamentarien elkarte:	1

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoa: 1

Arestikoa gorabehera, interpelazioak eta galderak eztabaidatzeko Osoko Bilkuretan egonen dira Nafarroako Gobernuko lehendakaria eta gehienez bost kontseilari, Mahaiko bost kideak, legelari nagusia eta harekin batera doan legelaria, bai eta talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkartearen eledunak edo horien ordezkokoak.

Gainerako kideen parte-hartzea bideokonferentziaz gauzatuko da, esku hartu behar dutenean. Bilkura horietan, bozketa aurretiazko boto-eskuordetze bidez egin ahalko da, Erregelamenduko 94.2.b) artikulua eta lehendakariaren 2020ko martxoaren 24ko 28/2020 Erabakiak xedatuari jarraituz (Foru parlamentarien boto-eskuordetzeari buruzko erabakia, COVID-19 koronabirusak sorturiko osasun-larrialdiko krisiari erantzutetako; 38. NPAO, 2020ko martxoaren 25ekoa)".

2. Erabaki hau hurrengoei jakinaraztea: foru parlamentariei, Legebiltzarreko langileei, Foruzaingoari eta Nafarroako Gobernuari.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Iruñean, 2020ko urriaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**Arauak, Kontseilu Europarrean 2020ko uztailaren 21ean onetsitako Europako funtsetan nahiz Espainiako Gobernuari proposatuko zaizkion kasuko proiektuetan Nafarroak parte hartu ahal izateari buruzko Osoko Bilkura monografikoko eztabaida antolatzeko.**

**AKATS ZUZENKETA**

Akats bat aurkitu da Kontseilu Europarrean 2020ko uztailaren 21ean onetsitako Europako funtsetan nahiz Espainiako Gobernuari proposatuko zaizkion kasuko proiektuetan Nafarroak parte hartu ahal izateari buruzko Osoko Bilkura monografikoa antolatzeko arauetan, bigarren arauan hain zuzen. Arau horiek 2020ko urriaren 7ko 107 Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren. Hona hemen zuzenketa:

Honako hau dioen tokian:

“2. Mintzaldi horiek bukatuta, bilkura ordubetez etenen da, eta Mahaiari erabaki proposamenak aurkezteko epe bat irekiko da”.

Honako hau esan behar du:

“2. Mintzaldi horiek bukatuta, bilkura ordu eta erdiz etenen da, eta Mahaiari erabaki proposamenak aurkezteko epe bat irekiko da”.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

